

KONTROL MOZIOA

ALTZAKO KIROLDEGIKO LANAK DIRELA ETA

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14an Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal teknikariek Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformarekin 2018ko azaroaren 13an egindako azken bileran jakinarazi zuten hilabete batzuetako atzerapena izango zutela kiroldegiaren eraikuntza lanek, Jaurilaritzak egin beharreko izapide batzuen mende baitzegoen. Atzerapen horren jatorrian zegoen berriz agertu izana amiantoa, ordukoan, kiroldegiaren orubean bertan. Geroztik berririk ez dute izan plataforma horrek ezta altzatarrek ere.

Bestalde, plataformaren lanaren emaitza garrantzitsua izan da Udalak erabaki izana altzatarrek ez ordaindu behar izatea, 2019an, Kirol Txartelaren sarrera kuota. Edonola, ekimen horren emaitzaren berririk ez dugu izan.

Era berean, Larres ibarrean egindako lur estaltze lanetan amiantozko partikulak topatu ziren airearen kalitatearen neurketetan. Hori zela eta, lanak eten behar izan ziren hilabetez. Lanak amaituta, kutsatutako lurren gainean parke bat atondu du Udalak, auzotarrek eta Plataformako kideek egindako gomendioei jarraiki. Hala ere, hainbat gorabehera sortu dira eremu berri horretan lanen inguruan, luiziak eta zolatze arriskutsua tarteko. Horiei gehitu behar zaie uralitzako hondarrak agertu izana (ikus eranskina). Gorabehera horiez kexak eta iradokizunak egiteko esparrurik ez die eskaini Udalak herritarrei.

Horren haritik, ohartarazi behar dugu ere amiantoa lur azpian gorde arren, ziurtatu behar dela ez bilakatzea hurrengo belaunaldiei eragin diezaikeen arazo. Prebentzio politika ezarri behar du Udal gobernua, eta ez soilik erreaktiboki jardun, orain arte bezala. Gainera, Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformak ohartarazi zion Udalari Berra egoitzaren inguruan dagoen eremuan (4. ITEMA), amianto hondarrak (uralita) daudela eta irtenbiderik ez zaiola eman oraindik. Premiazkoa da amianto hori jaso eta behar bezala tratatzea berriazko zabortegean. Aipatu bezala, herritarrek ez dute 4. itemerako asmoen eta epeen berririk, ezta 1, 2 eta 3 itemetako lur estalien egoeraren jarraipena egiteko asmorik dagoen ala asmorik ez dagoen ere.

Pasa den urriaren 14ko Lurralde Garapeneko batzordean, Ingurumeneko zinegotziak azaldu zuen ez dela aurreikusi Altzako herritarrekin bilera irekirik egitea. Gogorazi behar dugu udal ordezkariak hitzeman zutela Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformako kideei bilera ireki bat deituko zutela 2019ko otsailean, altzatar guztiei irekia, egitasmoen egoeraren inguruan jarduteko (kiroldegi berriaren eta kanpoko igerilekuen eraikuntzak, lur kutsatuen estaltzea eta horietan eraikiko den

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

parkea, Santa Barbara/Harri Berri eremuan aparkaleku berri bat eraikitzea, 4. itemeko lurren ingurumen azterketak, Oleta ikastetxera irisgarritasuna bermatzeko aukerak...).

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1.- Donostiako Udaltzakoak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari antolatzea bilera ireki bat, Altzako herritarrei zuzendua, Altzako kiroldegia egitasmoen egoeraren inguruan jarduteko (kiroldegi berriaren eta kanpoko igerilekuen eraikuntzak) eta baita lur kutsatuen estalketaren jarraipenaz eta 4. itemeko lurak estaltzeaz, Santa Barbara/Harri Berri eremuan aparkaleku berri bat eraikitzeaz, Oleta ikastetxera irisgarritasuna bermatzeaz eta, oro har, herritarrek dituzten kezken eta beharren inguruan.

Donostian, 2019ko urriaren 18an.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia